



Hizkuntzen banaketa Euskal Herriko kultur eskaintzan: hiru kasu-azterketa


Maialen Barinagarrementeria, Lier Isasi, Nagore Landeta & Eneko Zuloaga

Uhagon kultur elkarteak (Markina-Xemein, Bizkaia)

MAIALEN BARINAGARREMENTERIA





“Kultur egitarauan hobetzeko alderdi bat aipatzekotan, batez ere ikus-entzunezko ekintzetan jarriko nuke fokua. Izan ere, urte osoan zehar euskaraz soilik bi pelikula eskaini izanak badakar zeresana. Zinemaren Lagunak lan-taldeko kide batek adierazi zidan bezala, zaila omen da euskarazko filmak aurkitzea, eta beraz, zinea eskaintzen den hilabeteko bi egun horietan gaztelaniazko bertsioa eskaintzen da”



Herriko kultur etxea (Sopela, Bizkaia)

LIER ISASI



“Beraz, lan honetan, Sopelako kultur etxeako eskaintza zer hizkuntzatan egiten den eta, eskaintza horrek herritarren egoera linguistikoarekin bat egiten duen aztertu nahi izan dut. Gainera, Covid-19-ak eragindako krisiak kulturaren, eta batez ere euskal kulturaren zer aldaketa edo ondorio izan dituen ezagutzeko”



“Haurrak dira euskararen ezagutza eta erabilera handiena dutenak, gero eta gehiago euskaraz eskolatzen direlako eta ingurune euskaldunetan hazten direlako. Sopela eta Uribe Kostako datuetan ikusten da hori, haurrak baitira euskararen batez besteko ezagutza gainditzen duten adin talde bakarra. Beraz, dinamika sozial eta kulturalak elkarri lotuta daudenez, Sopelako kultur etxean haurrei zuzendutako eskaintza guztiak, hala nola antzerki emanaldiak eta filmak, euskaraz egiten dira”

Azebarri eta Benta Auzo elkarteak (Getxo, Bizkaia)

NAGORE LANDETA



“Ikerketa honen helburu nagusia da Getxoko bi kultur elkarteren 2023ko agendan euskararen lekua zein den aztertzea. Beraz, arreta berezia jarriko dut elkarteek ordezkatzeko duten ereduaren, eta bi elkarten funtzionamenduaren inguruko berdintasun eta ezberdintasunak landuko ditut”

“Hautatutako galderak hauek dira:

- Zenbat eskaintzen da euskaraz Getxoko kultur elkarte horietan?
- Zer eskaintzen da euskaraz?
- Norentzat eskaintzen da euskaraz?
- Nork eskaintzen du euskaraz?
- Zer-nolako lotura dute euskal eta erdal eskaintzak tokiko errealitate soziolinguistikoarekin?”

